



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

ARRASATEKO UDALBATZAREN ERAKUNDE ADIERAZPENA, ISRAELEK PALESTINAKO HERRIAREN AURKA EGINDAKO ERASOAREN AURREAN

Azken aste hauetan Palestinako herria kalera atera da Nakba-ren hirurogeita hamargarren urteurrena oroitzuz eta protesta eginaz pairatzen duen krisi humanitario zein giza eskubideen urraketagatik eta Estatu Batuek Israelgo enbaxada Jerusalemara eramateagatik.

Maiatzaren 14an, Israelek protesta baketsu horren aurka buruturiko errepresioa odoltsua izan zen: gutxienez 59 pertsona hil (6 adin txiki) eta 2.700 zauritu. Zauri horien erdiak egiazko munizioa erabiltzearen ondorio izan ziren. Egun 130 pertsona daude egoera oso larrian.

UNRWA delako erakundeak (UNITED NATIONS RELIEF AND WORKS AGENCY izeneko - nazio batuen agentziak) adierazi duenez, Gazako ospitaleetan ekipo medikoak gainezka daude. Geratzen zaien erregaiarekin zazpi egunerako baino ez daukate hebakuntzak egiten jarraitu ahal izateko.

Eraso honen aurrean Arrasateko Udalbatzak zera adierazi nahi du:

BAT: Arrasateko Udalak erabat arbuiatu du Estatu Batuen enbaxada Jerusalemara aldatzeagatik protestan kalera atera ziren milaka palestinarren aurka Israelgo armadak erabilitako indarkeria. Izan ere, horren ondorioz 59 pertsona hil baitira eta zaurituak mila



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

baino gehiago izan baitira. Hauxe izan da lurralde okupatuetan 2014. urteaz geroztik gertakaririk odoltsuenetarikoa. Azkenik, Arrasateko udalak Eusko Legebiltzarrari eskatu nahi dio Israelgo estatuari eska diezaion berma dezala Palestinako herriaren giza eskubideekiko errespetua.

BI: Arrasateko udalak elkartasuna eta doluminak adierazi nahi dizkie zuzenean edo zeharka kaltetutako pertsona guztiei.

HIRU: Arrasateko Udala bat dator Nazio Batuek Israeli zuzendu dioten deiarekin Gazako mugan indarkeria ekidin dezan (Europar Batasuna eta nazioarteko komunitateko hainbat herrialde zein organismoekin bateginez), ikusirik Israelgo armadak palestinarren protesten aurrean eragindako biktima-balantze odoltsua. Eta horretarako hurrengo egunetan bazter dezala populazio zibilaren artean biktima gehiago eragin dezakeen edozelako neurri.

LAU: Arrasateko Udalak berretsi egin du Diputatuen Kongresuak Palestinako Estatuaitortzeari buruz 2014ko azaroaren 26an hartutako akordioa.

BOZKETA: AHO BATEZ ONARTU DU UDALBATZAK ADIERAZPENA, Arrasaten, 2018ko ekainaren 5ean.